

IBARBI (ERREZIL SAGARRA)_ALVARO BERMEJO / JOSEBA URRETABIZKAIA

8 APIRILA, 2021 | IN KATEGORIA GABEA | BY ERREZILGO IBARBI SAGARRA

‘Ibarbi Errezil sagarra. Sagarren erregina’ liburua aurkeztu dute gaur Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Igandean Errezilen bertan egingo dute aurkezpena, 12:00etan, pilotalekuan.

Errezil sagarraren inguruko liburua kalean da: gaur aurkeztu dute Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean *Ibarbi Errezil sagarra. Sagarren erregina* izeneko lana. Tolosako Xibarit argitaletxeak kaleratu du liburua, Soroa bildumaren barruan. Aurkezpenean izan dira, besteak beste, Alvaro Bermejo liburuaren idazlea eta Joseba Urretabizkaia argazkilaria. Han izan dira, era berean, X

Pribatutasuna eta Cookien politika

ñaki

Labaka Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria eta Luis Berrondo IBARBI Errezilgo Errezil Sagarraren elkarteko lehendakaria.

Euskal Herriko produktuen inguruan hitz egiteko sortutako bilduma da Soroa, eta bilduma horretan kokatu dute Errezil sagarraren ingurukoa. Lana osatzeko, Errezil Sagarraren Elkartearekin jarri dira egileak harremanetan. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Errezilgo Udalaren babesak izan du liburuak.

Gaur Donostian aurkezpen ofiziala eginda, sagarraren herrian, Errezilen bertan, aurkeztuko dute liburua igandean. 12:00etan egingo dute aurkezpena, pilotalekuan.



https://www.youtube.com/watch?v=tCa2_3MMUwo



Errezilgo Ibarbi Sagarra

ALL AUTHOR POSTS

[f](#) [🐦](#) [G+](#) [📌](#) [in](#) [↗](#) [📧](#)

[< PREV](#)

[NEXT >](#)

Eureizko Sagarrak Euzia herriarentzako izan duen eta gaur egun ere duen garrantzia ikusirik, berau ezagutzera eman eta indartzeko sortutako egitasmo bat da hau.

MENUA

- > SARRERA
- > HERRIA
- > GURE SAGARRA
- > KULTURA
- > NATURA
- > IBILBIDEAK
- > KONTAKTUA

AZKEN BERRIAK

IBARBI SAGARRA SAGARDO FORUMEN

22 azaroa, 2021

SUSTRAIA_IBARBI SAGARRAREN LORALDIA

23 maiatza, 2021

© 2018 Errezilsagarra.eus | Lege oharra

